

¡JESUS!

«Arzaiak datoz
Salto ta brinko
Mendiak barrena,
Jesus adoratzera
Aldan lasterrena.»

Nere chikitako kant'au datorkit burura, eta malkoa begira. Ez det esan bearrik zergatik; Euskal-errian kanta onek aztuerazotzenditu pena guztiak, eta malkoa jaiotzenda Euskaldunen begietan, baña ¡zeñen gozoa dan! ¡A!.... goazen, goazen gu ere salto ta brinko arzai aek bezela, Jesus-Aurra adoratzera, ¿norá ordea? ¡goseak eta otzak arkitzen diran aurrak billatzera! guztiak dira gureak, ¡bai! zergatik guztiak Jesussek dituen, eta Jesus gurea dan.

Onela ikusiko degu, pozaren malkoa zorionekoa bada, zoriona bera dala, Jesus adoratuaz, besteri chukatzenzaiona. ¡A!.... eta ¡zenbat ikustenditudan, nereetaz azturik, chukatu bear nitukenak!

ANTONIO ARZAC.

1882-ko Abenduan.



KANTARTEA

Goazen, goazen,
Zer ete dogun billatzen
Gaur Belenen
Aska baten
Ume bat ei da aurkitzen
Ume bat baña
Umeen gaiña,
Eguzkia bera baño
Askoz dana ederrago.

Belen inguru orretan
Zer dakit zer dan gertetan
Gau onetan,
Aiñ modutan
Aingeru taldak
Egoz zabalak
Zeruetatik lurrera
Soñu ederrak jotera
Datoz estalpe batera.

Goazen, etc.

Estalpe zan arek beti
Eta abereen toki
Gaur dirudi
Zeru bizi
Dударик бага
Biurtu dala,
Nik beintzat alandot uste,
Bestelan ezin laiteke
Batu aingeru ainbeste.

Goazen, etc.